



AKELARRE - N. Basterretxea



EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortasun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarriz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

Lege gordailua: BI-85-98

berton

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA


2000ko martxoak 20. zkia.
125 pzta.

OTXARKOAGAKO UDALTEGIA:
ERRITMOZ BETERIKO
GIMNASIA




AHOZTAR ZELAIETA
ARTALDEKO *ARDI BELTZA*

Santutxuko ihauteriak



Haur eskolak (II) ↔ Garaizar Abesbatza ↔ Martxoak 8

betikoak



IBAIAREN ALTZOAN

Honako erretratu "Revista Financiera Banco de Vizcaya. 1901-1951" aldizkaritik hartu dogu. Azken urte horretantxe argitara emondakoa, aldizkari baino liburu mardula dogu, benetan. Eta urte hartakoa ei da erretratu hau. Foto Lux. izenpea daroa. Oraingoan geure begien gozagarri ibai eder bakartia, makalak, intzak eta ur lasai gardenak. Ibaiaren altzoari bakea eta malenkonia dario. Non ete egoan holako paradisua? Erretratu azpian dakarrena baino ez dotsuegu esango: Paisaje en Bolueta. Ba leike?

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1.
ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta:
berton@mail.com

ZUZENDARIA

Hektor Ortega
ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Joana Martínez,
Joana Etxebarria,
Irene Berro,
Iratxe Ruiz,
Leire Altamira,
Erdoitza Martínez

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona eta
Xabier Herrera

DISEINUA ETA MAKE-
TAZIOA:
Iñaki Berastegi,
Joseba Barrenet-
xea, Benito Fiz

KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia,
Itxaso Perez,
Alberto Ugarte,
Iñaki Gaminde,
Igor M. de Vidales,
Santutxuko Bertso
Eskola,

Igor Zorrozu,
Iñaki Aurrekoetxea,
Joseba Zelaia.

ADMINISTRAZIOA
ETA PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoe-
txea, Joxe Garcia

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98
ALE KOPURUA:
1.000

A U R K I B I D E A



- | | | | |
|---------------------------------------|----|--|----|
| ▶ Betikoak | 2 | ▶ Mahatsberriak | 20 |
| ▶ Iritzia | 4 | ▶ Haur Eskolak (II) | 24 |
| ▶ Garaizar abesbatza | 5 | ▶ Bidean Gora, Mendi Ibilbideak | 26 |
| ▶ Ihauteriak | 7 | ▶ Bota ba!, Gimnasia Erritmikoa | 27 |
| ▶ Begoña eta euskerea | 12 | ▶ Bideak, Trikitrixa Karmelo Ikastolan | 28 |
| ▶ Berton dugu! Martxoak 8 | 14 | ▶ Badatoz, Agenda eta horoskopoa | 30 |
| ▶ Elkarriketa, Ahoztar Zelaieta | 17 | ▶ Begizorrotza, Komikia | 31 |

Inbestigetan nabil, aber nok ostidxe egin eusten lengo hilien neure artikulue eskribidu eta neure ixenagaz firmau. Bai, harek, batuen eskribidu zauena ta ni nintzela esan zauena. Farsantie! Zuek pentsetan dozue nik batuan eskribiduten inoz ikisiko dotela? Ezin dot barrez. Honeik artikuluo badakizue zelan egitten dotetan? Ba, ilobiek erosi zauen ordenadorie, ta harek deko mikrofonoa, ta esaten dotzezun guztidxe esaten dozun modure kopiaren dau. Ze pentsaten zenduen ba?

Ta ha farsantie guzurretan ibili ta Bertoneko koittadueri engaño, gero! Bueno, bueno, bueno. Hamen baten bat dabil enredaten eta aber Ardi Beltzakoak enteraten direzen zer pasaten dan, ze hamen telie dago! A, eta ez eizue pentsau karnabaletarako disfrazau nintzela, ez, hau konplo bat ixan da. Eta kontuz gero! Hamen esku baltz asko dagoz ta (ezpabere, nok ipinten dostaz h-ak artikuluen?)

Firmaute: Matxorring 2000



Honelaxe deritxu Begoñako Santutxu auzoko kale txiki bati. Kale hori "María Reina" eleizatik hurren dago, eta Albacete eta Elizondo kaleak batzen dauz.

Kale honi izena emoten deitso Bizkaiko idazle garrantzitsua den Domingo Agirre eta Badiolak (1864-1920). Ondarroan jaio zan; beraren aita, oster, ez zan arrantzalea izan, ezperen arotza. Hamazazpi edo hamazortzi urte ebazala, aitagaz arotzian ebillela, Bilboko artzapezpikuak eroan eban laguntzaile legez, eta bertan erabagi eban eleizarako izatea. Bilbon ikasi ebazan Latina eta Giza Zientziak. 1884. urtean Gasteizera joan zan Filosofia eta Teologia ikastera. 1888an abade egin zan.

Resurrección María Azkuek odol-zurbil eritxon, hau da, izakera trankilekoa. Ez eban behin bere belaunbiko egon behar izan, okerkeriarik egin ez eban eta. Bera osasun makalekoa eta ahula zan. Itxura baten, horrexegaitik emon outsoen Zumaiko Errukitasunaren Ahizten kaperau kargua.

Domingo Agirrek Ortega y Gasseten oneretxia eban, bai eta Iturribarria olerkari gaztelaniadunarena, eta Karmelo eta Bonifazio Etxegarai anaia biena. Izan bere, Bonifazio Etxegarai gaztelaniara itzuli eban Kresala elebarria, eta hori Madrilgo El Correo Españolen argitaratu zan.

Domingo Agirrek Euskalzale aldizkarian idatzi eban; Jaungoiko-Zale abade-alkarteko kidea izan zan, bai eta Euskal Esnalearen zuzendaritzakoa bere. Oñatin, 1918an, egin zan Eusko Ikaskuntzen I. Kongresuan Hizkuntza Atalaren burua izan zan, eta hantxe erabagi zan Euskaltzaindia sortzea.

Idazle honek hainbat elebarri idatzi ebazan euskeraz: Auñemendiko lorea (bizkaieraz; Bilbo, 1898) [jatorrizko izenburutzat Riktrudis jarrikuton], Kresala (bizkaieraz; Euskalerra aldizkarian 1901ean zatika; eta ondorik liburu legez, Durangon, 1906an Florentino Elosuk egin da), Garoa (gipuzkeraz; Revista Internacional, 1907; liburu legez, Florentino Elosuk argitaratu eban 1912an), Ni eta ni eta abar. 1890an, Donostian, A. Larramendiren bizitzaren berri labur liburuxka argitaratu eban. Joan etorri bat Erromara idatzi eban Euskalzale aldizkarian. Bera hil eta gero, Ondarrak izeneko liburua argitaratu eban aita Santi Onaindiak Bilbon, 1964. urtean. Urte bi geroago, 1966. urtean, aita Luis Villasantek argitaratu eban "Domingo Agirrearen eliz-itzaldia", Arantzazun.

Horrezaz gain, Vicenta Mogel idazlearen Ipui Onac liburuaren hitzaurregilea izan zan, Euskal Esnaleak egindako argitaraldian. Honek lerrook erabili gura dodaz, hauxe esateko: geroago zabaldu dan "Txomin Agirre" berak ez eban gustuko. Berak gura eban, "Domingo Agirre" eretxi egion.

GOTZON LOBERA REVILLA, Euskara Sustatzeko Zuzendari Nagusia (Kultura Saila - Bizkaiko Foru Aldundia).

UEMAREKIN BAT

Bat gatz UEMaren jardunarekin, eta bat gatz hau ez da elkartasun adierazpen hutsa, bat gatz, batera goaz, eta bat gara euskararen normalizazioan, ez beti batuta, berriz. Eta beharbada, beti batuta eta batera ez dugu beti ibili behar, bakoitzak bere zer-egintxo dauka gure hizkuntzaren duintze-modernizatzeko-zabaltze eta beste hainbat tzetze batzen dituen proiektu honetan.

Baten bateri tze horiek guztiak ez zaizkio asko gustatzen nonbait, eta noizik behin horrelako purrustadaren bat botatzen digu, banan-banan, gaur bateri eta bihar beste bateri, orain zuri eta gero niri, eta horrelakoren baten aurrean akordua

ra etortzen zaigu bat garela eta batu egiten gara inoiz baino batago, eta orduan aldarri egiten dugu: bat gatz UEMarekin, bat gatz AEKrekin, bat gatz Euskalerra irratiarekin, eta ez dugu gezurrik esan, leku batera goaz denok, nora goazen-eta ados gaude. Eduki dezagun gogoan beraz, eta jakin dezagun itsasontzi berean goazela, bakoitza bere zer eginean, eta itsasontzi hori ez da purrustada batzuekin hondoratuko. Baina, txalupa txikiak erraz-errazak dira botatzen, olatu pare batekin hain zuzen.

Eta gu bat gatz UEMarekin.

Asapala Kultur Elkarte



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

hartu bertón etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertón aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:

Abizenak:

Kalea:Zenbakia: Solairua:

Herria: Herrialdea: Posta Kodea:

Telefonoa:

Bankua:

Kontu zenbakia (20 digito): ____ / ____ / ____ / ____

Sinadura



1 *Joana Martínez Ortueta*

Asko eta asko dira Mahatserrian ditugun talde eta pertsonai ospetsuak, eta aldizkari honetan beraien berri ematen saiatzen gara aiez ale. Baina oraingo honetan orrialde hauek txiki geratuko zaizkigu, ez baita batere lan erraza Garaizar'ko Matsorriak abesbatza osatzen dutenen ahotsen edertasuna paperean isladatzea. Izan ere, talde honek urte luzeak daramatza martxan, eta esperientzia igartzen da beraien lanean. Bota dezagun ba begiradaxo bat atzera.

1987ko martxoaren 26an bildu zen lehen-dabizi gizonez osotutako abesbatza, José Luis Echebarría (Txelu)-ren gidaritzapean. "Garaizar'ko Lagunak" izenez ezagututako hasierako proiektu hura aurrera zihoala ikusirik, bi urteren buruan emakumezkoen abesbatza jaio zen izen berarekin. Urteak joan, urteak etorri, 1992.ean hartu zuten azkenik gaur egun ezagutzen dugun izendapena, euren jatorriari buruzko zalantzak guztiz argitzen dituen:

Garaizar'ko Matsorriak.

Ordurako taldeak sendotasun nahikoa bereganatua zuen eta horrela, 1996.ean B.A.E. (Bizkaiko Abesbatzen Elkarte) delakoaren barnean sartu zen. Harrezkero talde hau Uda-berriko Kontzertuetan zein Bizkaiko Abesbatzen Astean hartzen du parte urtero urtero.

Baina horiek ez dira Garaizar'ko Matsorriek ematen dituzten kontzertu bakarrak, noski. Taldea jaio zenetik Santa Ageda egunean zein Barrikako Aterpean gabon garaian abesteko ohitura daukate, horrez gain kale animazioan eta elizkizunetan ere aritzen dira kantu kantari. Errezitaldiak eman dituzten lekuen zerrenda ez da txantxetako, ez horixe: Lemoa, Munka, Etxebarri, Gernika, Berango, Larrauri... eta abar luze bat.

Hala ere, ezin ditugu ahaztu Birginetxeko elizan zein eskolan burutzen dituzten ekitaldiak, izan ere oso lotura estua daukate azken honekin: bertan biltzen dira astero bitan en-

A T U G U R E A



tsaiatzeko eta horri esker lortu dute gaur egun daukaten maila -eta ez da makala-. Gogotsu saiatzen dira, bai, abesbatza osatzen duten 33 gizon eta 24 emakumeek taldea aurrera ateratzen, nahiz eta hori lortzeak batzuetan sakrifikatzen behartu. Ezin dugu ahaztu hemen ere, kultura kontuekin sarri gertatzen den bezala, diru iturriak eskas samarrak direla.

Dena den, abesbatza osatzen duten gehienak helduak dira (gazteren bat ere badago, noski) eta zailtasunei aurre egiteko prest daude; benetan gustuko dutena egiten jarraitu ahal izateko: abestu. Horrela, Garaizar'ko Matsorriek erreperitorio luzea dute eskaintzeko, Boga Bogatik hasi eta Gabeko izar-eraino, hainbat estilokoak baina gehienetan



euskaraz, taldearen ildoak markatzen duen moduan. Horrela, eta zuzendari berrien gidaritzapean -José Antonio Calzada Aranburu (Surti) eta Estitxu Pérez Uribarren- lanean segitzen dute


Garaizar'ko Matsorriek, egunetik egunera hobetuz. Espero dezagun musika luzarora-ko izatea.
GARAIZAR'KO MATSORRIAK,
Txomin Garat 1, 48004
(Bilbo)

bertin

SANTUTXUKO

Argazkiak:
Iñigo Azkona

IHAUCITERIAK



HAU DA MARTXA HAU!

Urtero ohi denez, aurten ere ihauteriak izan ditugu, eta aste bete lehenago ospatuta ere, kriston parranda egiteko aukera paregabea izan dugu. Era guztietako mozorroak ikusteko aukera egon zen Santutxuko kaleetan zehar. Hala, piratak, deabruak, troglodidak, aingeruak... denetarik ikus zitekeen martxoaren 5 ean.

Hainbat jende bildu zen bai eguerdian egindako desfilean zein egun osoan zehar izandako jaialdian barrena. Izan ere, gure artean euskal presoen Euskal Herriratzearen aldeko "giraldira" ikusteko aukera ere izan genuen besteak beste; beti ere, kontuan izanda gure artean nahi ditugun asko ezin izan direla egon gogoratuz.



Kolorez gainezka zegoen auzoa eta bata baino gehiagok gainera, aurreko egunean Bilbon ospatutako ihauteriak Santutxukoekin bat eginez, asteburu osoa parrandan ibiltzeko aukera ezinhobea ez zuen pasatzen utzi. Hura bai asteburu gogorra!

ASTEBETE LEHENAGO

Aurtengo Santutxuko karnabalak aste bat lehenago ospatu izana hauteskunde orokorren ondorio zela argitu dute famili elkartekoek. Hauen esanetan, Udalak baimenak ematerakoan eragozpen handiak jarriko zituela eta, ihauterietako komisiotan eztabaidatu ondoren astebete aurreratzea erabaki zuten.

Besteak beste, desfilearen ibilbideak ezingo baitzuen hauteskundeetako eskola ondotik pasatu, eta egun horretan egiteko baimenik ez izatea izan dira arrazoirik nabarmenenak.

Hala ere, hauteskunde egunean (martxoaren 12an) Santutxuko hainbat tabernaren inizatibaz berriro ospatu ziren auzoko aratusteak eta jai giro alaitsua egon zen Santutxuko aurtengo bigarren ihauterietan.



Gaztedi eta Euskeriari, eskerrik asko

Joan den martxoaren 5ean Santutxuko Aratuzteak-Ihauteriak; goizean ibilaldi zoragarria bezain ikusgarria auzoan zehar milaka lagun mozorroturik, eta arratsaldean 6,30etan Plaza Barrian, hi-tzez adierazi ezin dudana bi talde hauen agerraldia: "Gure kulturaren dantza eta kanta, kanta eta dan-tza uztarturik".

Goizean talde hauek hainbat pertsona algara, barre eta txantxan ikusi ondoren, nork pentsa arratsaldean horrelako emanaldi erraldoi bezain ikus-entzugarria eskeiniko zigituenik.

Baina aurretik egindako lanak bere fruitua ematen du dudarik gabe, eta nik badakit zenbat lan egin behar izan duten hori prestatzeko, azken asteotan zenbat

egun eta ordu eman dituzten pertsona horiek, baina beraien sakrifizioa ez da hutserako izan, behintzat Plaza Barrian egon ginen ikus-entzulegoak botatako txalo zaparradak hala adierazi zuten. Nire iritziz, bi orduetan mugitu gabe egoteak ere hori adierazten du. Beraz, eskerrik asko Gaztedi-Euskeria eta segi aurrera. Kanta eta Dantza egiten duen herria ez da inoiz desagertuko.

Aipamen berezia: aurkezlearen-gandik hasi eta taula gainean parte hartu zuten guztien euskararen erabilpena. Beraz, gora dantza eta kanta, gora gura kultura eta gure hizkuntza.

Benetan, mila esker.


JOSEBA BASTERRA





E R T O N D U G U !

E R T O N D U G U !




Konturatu zarie egunak gerorago luzeagoak direna? Bada, halan bada, horrek esan gura deu udabarria ateetan joka daukagula. Udabarriagaz batera, eguzkia, txoriak, loreak eta garauak itzuliko jakuz. Hau irakurri ordureko, sugoiak bere gorbiztatzen hasita egongo dira; medizaleak zarienok kontuz ibili gero, Larraurin jazoko moduan honelango bat agertu leikizue eta. estua grabagailurik harakoa denez gero, informanteak kontatuko modu berean dakartsuegu; edozelan bere, azpian euskara batuagoan egineko bertsioa bere ipini dogu.

Begoña eta Euskereea

I.Gaminde, I. Martin de Vidales eta K. Urrutikoetxea

Sugoya ukusitxe nau ni emen, t'ñños, t'estosue siñestuko e, estosuena siñestuko fijoada, emen ego leixikela, sugoya, kamiñoan eskiñe baterik besterakoa iños pase su burutik? porrejenplo, Larraurixik etorri, Binoterune paseu, a saria selan dauen beko alderditxik, an sarian parian sugoya, olau e, bero itzela dau, baya erretakoa dau beroa, eta, au tabernako Jose, Arritxen gabiltzes biarran, baya gu Arritxen biarran gabiltzesela Miren Begok? Mungidzeko pelukeri beten, bertan pelukeri beten ori ibil sen, ba, oin dala ba, sortzi bet urte, beratzire, ibil sala ori pelukeridxen biarran, memoridxen dekosu lxlabel? esan denpora andirixen, ba ibilko san biarran ba, bos sei illebetian bai, tabernan baño gurau deuela ta pelukeridxen ibil sen, bueno, gu Arritxen ibili biarran ta Josek esasosten:

Iñaki Miren Bego koxu biar du Mungidxen ba! - beskaritxen ekarteko, ta etor gintzen Mungidxetik, ta, artu gendun te etor gintzen ta, axe Binoteruneko



buelta artu:

- Ser dau an kamiñoan? - sokia edo, sugoya, iños estot pentzeu, emen ego leixela aolo sugoirik, ba sugoya baya, edoselan bere lau metro ta erdi ingeruko sugoya san, kamiñoan baterik bestera, sapaldu du sugoya kotxias, ta geldi dau e! se sugoyak en jeneral berora itxen deu, sugoya errekaokoa espada, sugoyak eguskire ta bero dauen lekure itxen deu, nik estaitx sena dan, sugoya geldi dau, ikeratu gara, au bakeskoa da, sugoya sapaldu du, kotxias ta sugoya esta iltxen, burue sapaldu esian, orduen asi de mogimendue:

- Bota atzes! - kristelak ixitxe, bota du atzes, sugoya alteretan dau, sapaldu itxen du te ibilli es, bota atzes, eures, iru bider sapaldu du, urtetan du, billur, palu bet edo euki bagendun, gero, sapaldu dunian baya ser da au ba! ulia pere altzeta baya billurregas, niri sugoyak estoste emoten billurrik

eskuen palutxu bet edo, nik sugoya beti ill, gusteta dxat, b'an estau eser, urten du kotxetik alan distantzitzuen, batu de olan, idxengo seuen edoselan bere, onen madxen alture ingeruen bai, batu batu batu intxe olan idxen deu, agoa aulasekoa! ta sugoya esiñ ill, esteku eskuen eser, iru bider kotxias sapaldu, andi sarati dxoan da, andi bera sugoya, kasue da se, au e, estot esaten e, amen esan dot, se edoseiñ esanda jo, jo, jo ori sugoya emen estau esango tzu, neure begidxekas ukusikoa da, Karmelok, an arditxu batzuk eta aiñ sarian beste alderditxik e, saldidxe ta muloa ta ardi batzuk eta Karmelok eukitxe txus an ba, txabola sar ba teko ta, ba muloa urreo egunian iltxe, Karmelori il dxako muloa, urreo egunian neuk tabernan entzuneuen, ta selan ta? seusek pikeu edo estai-pa, betarinaid-xoak esteu igerri txe il ye.

Sugoa ikusita nago ni hemen, eta inoiz, eta ez duzue sinestuko, ez du z u e n a sinestuko ziuerra da, hemen egon litekeela, sugoia kaminoan bazter batetik besterakoa inoiz pasatu duzu burutik? esate baterako, Larrauritik etorri, Binoteruna pasatu, sare hura zelan dagoen beheko alderditik, han sarearen parean sugoia, holakoa, bero itzela dago, baina erretzekoa dago beroa, eta hau tabernako Jose, Arrietan gabiltza beharrea, baina gu Arrietan beharrea gabiltzala Miren Begok? Mungia-ko ile apaindegi baten, bertan ile apaindegi baten hori ibili zen, ba, orain dela ba, zortzi bat urte, bederatzira, ibili zela hori ile apaindegian beharrea, gogoan daukazu lxlabel? ez zen denbora



handirik izan, ba ibiliko zen beharrea ba, bost sei hilabetean bai, tabernan baino gurago duela eta ile apaindegian ibili zen, beno, gu Arrietan ibili beharrea eta Josek esan zidan:

- Iñaki Miren Bego hartu behar dugu Mungian ba! - bazkaltzen ekartzeko, eta etorri ginen Mungiatik, eta, hartu genuen eta etorri ginen eta, huraxe Binoteruneko buelta hartu: - Zer dago han kaminoan? - soka edo, sugoia, inoiz ez dut pentsatu, hemen egon litekeela haolako sugoirik, ba sugoia baina, edozelan ere lau metro eta erdi inguruko sugoia zen, kaminoan batetik bestera, zapaldu dugu sugoia kotxeagaz, eta geldi dago! ze sugoiak gehienetan berora egiten du, sugoia errekaokoa ez bada, sugoiak eguzkira eta bero dagoen lekura egiten du, nik ez dakit zerena den, sugoia geldi dago, ikaratu gara, hau bakezkoa da, sugoia zapaldu dugu, kotxeagaz eta sugoia ez da hiltzen, burua zapaldu ezean, orduan hasi da mogimendua:

- Bota atzez! - kristalak itxita, bota dugu atzez, sugoia artegatzten dago, zapaldu egiten dugu eta ibili ez, bota atzez, aurrez,

hiru bider zapaldu dugu, irteten dugu, bildur, makila bat edo eduki bagenuen, gero, zapaldu dugunean baina zer da hau ba! ileak ere altxatuta baina bildurragaz, niri sugoiak ez didate ematen bildurrik eskuan makilatxo bat edo, nik sugoia beti hil, gustatzen zait, ba han ez dago ezer, irteten dugu kotxetik halan distantziazatxoan, batu da holan, igango zuen edozelan ere, mahai honen altuera inguruan bai, batu batu batu eginda holan igan du, ahoa haolasekoa! eta sugoia ezin hil, ez daukagu eskuan ezer, hiru bider kotxeagaz zapaldu, handik saretik joan da, handik behera sugoia, kasua da ze, hau, ez dut esaten, hamen esan dut, ze edozein esanda jo, jo, jo hori sugoia hemen ez dago esago dizu, neure begiakaz ikusikoa da, Karmelok, han arditxo batzuk eta haren sarean beste alderditik, zaldia eta mandoa eta ardi batzuk eta Karmelok edukitzen ditu han ba, txabola zahar bat dauka eta, ba mandoa hurrengo egunean hilda, Karmelori hil zaio mandoa, hurrengo egunean neuk tabernan entzun nuen, eta zelan eta? zerozerk pikatu edo ez dakit ba, albaiteoak ez du igarri eta hil da.

MARTXOAK 8



⇒ *Joana Etxebarria*

Martxoak 8 abiapuntutzat harturik emakumeekin erlasionaturiko gauza askori buruz mintza gaitzke, baina lehenik eta behin, eta erreportaiari nolabaiteko hasiera ematearren egun honetan gertatutakoa labur-labur errepatatuko dugu.

1908. urtean oihalgintzan lanean ari ziren 20.000en bat langilek, gehienak emakumeak, hiru astetako grebari ekin zioten eta honen ondorioz beraien lan baldintzak hobetzea lortu zuten. Orduz geroztik ekintza publiko ugari antolatu ziren eskatzen zutena lortzeko asmoarekin.

Testuinguru honetan, Triangle Shirt waist Company delako enpresan gertaturiko sutearen ondorioz 146 langile hil ziren eta aldarrikapen eta salaketak tinko iraun zuten. Horrela, 1911 ospatu zen lehenbiziko Emakumearen Nazioarteko eguna Alemania, Austria eta Suitzan.

Data honek gizarteari berdintasuna lortu nahi bada oraindik ere borrokatu beharra dagoela gogorarazten dio.



Horrelako egunak hurbiltzen direnean eta horrelako artikuluak idazterakoan sarri aipatzen da zer esana eman duten zenbait emakume era-

gile, Rigoberta Menchú esaterako. Guatemalako emakume indigena honek gogor lan egin du bere lurraldeko eta bereziki herri indigenen giza eskubideen alde eta 1992. urtean Premio Nobel dela Paz saria eskuratu zuen.

Rigoberta bezala beste zenbait aipa genitzake, Kalkutako M^a Teresa eta abar luze bat, baina oraingo honetan zuri buruz hitz egin nahiko nuke Maria, Isabel, Teresa, Miren, Kontxi, Nerea... Ezaguna edo ospetsua ez izan arren egunero lan eta lan zabiltzan emakume horri buruz. Ezezagunak zarete, agian, baina ez horregatik merezimendu gutxiagokoak.

Garaiak aldatu dira, lehenagoko denboretan, baserrietan bost, sei edo hamar seme-alaba eta etxeaz arduratzen ziren andra nekaezinak genituen Euskal Herriko txoko desberdinetan. Gaur egun, aldiz, kalean soldatapeko lana izan arren etxean ere lanean dabiltzan emakume adoretuak ditugu.

Panorama hau ikusiz esan dezakegu emakume askok ez duela atsedetik hartzeko betarik ere ez.


Baina dena ez da horren ilun ikusi behar, horren ezkor; izan ere, garai batetik hona egoera dezente aldatu da eta ziur geroz eta gehiago joango dela aldatuz. Esperantza galdu gabe gogor jarraitu behar da lanean berdintasunean oinarrituriko gizartea etorkizunean errealitate izan dadin.

Martxoaren 8an, hedabideek emakumei zuzentzen diete euren begirada, kalean manifestazioak egiten dira, hainbat eta hainbat ekintza antolatzen dira eta guzti hau gizarteari gogorarazteko oraindik ere arazo bat badagoela.




Martxoaren 8ak gure gizartean eman diren aldaketen balorazioa egiteko eta hauen inguruan pentsatzeko aukera ematen digu; eta baita ere, oraindik, emakume askok mundu osoan beraien sexuaren ondorioz dituzten arazoei buruz hausnartzeko aukera.

Erreportaiari bukaera bat emateko Joyce Wilsonen paratutako esaldi bat erabiliko dugu. "Gaur egun benetako emakume bat izateko, Venusen edertasuna, Cleopatrararen zuhurtasuna, Juana de Arcoren adorea, Maria Antonietaren arropa armairua eta amoniakoaren garbitzeko ahalmena izan behar dituzu".



ZER DERITZOZU, HAUTESKUNDEAK DIRELA ETA, IHAUTERIEN DATA ALDAKETARI?



IBON BILBO

Berdin dit. Lan egin behar dut bai egun batean bai bestean.



ELISA TXURDINAGA

Txarto, orain Bilbora joatea edo hemen geratzea aukeratu behar dugu.


AITZIBER BILBO

Jaia egonda, berdin dit noiz diren ihauteriak.



AINTZANE SANTUTXU

Ez zait inporta, normala iruditzen zait hauteskondeak garrantzitsuagoak direlako. Gainera jaia berdina izango da!




KARMELE SANTUTXU

Santutxutarrentzat ez dut uste gustuko aldaketa izan denik, derrigortua izan baita. Hala ere, garrantzitsuena urteroko jaia ahalik eta ondoen ospatzea da, arazo eta oztopo guztien gainetik.



DESIRÉ SANTUTXU

Berdin zait, inportanteena festa egongo dela da. Dena den, ez dago ondo ihauteriak betidanik egun horretan ospatu izan badira orain hauteskundeengatik aldatzea.




IÑAKI SOLOKOETXE

Ez dakit zertarako aldatu duten data, aurtengo hauteskundeek ez diet kasu handirik egingo eta.

ERNESTO SANTUTXU


Ihauteri biak asteburu ezbardinetan ospatu beharko lirateke biak aprobetxatzeko aukera gehiago izateko.



Ahoztar Zelaieta

1995eko maiatzean Pepe Reirekin elkarrizketa bat izatea proposatu ziotenetik "Egin"eko ikerkuntza taldean kolaboratzaile gisa hasi zen mahatserritar hau, eta geroztik jarduera horretan dihardu. Orain, Ardi Beltza aldizkari sortu berriko kidea da. Berarekin izan ginen Ardi Beltza gehiago ezagutzeko asmoz.

Testoa: Irune Berro
Argazkiak: Iñigo Azkona





BERTON: Jakin badakigu Ardi Beltza Egineko ikerkuntza taldetik sortutako proiektua dela. Baina nola eta zein helbururekin hasi zen Ardi Beltzaren mugida guztia?

AHOZTAR: Egin itxi eta gero Euskadi Información sortu zen trantsizio egunkari gisa. Bertan gure kapazitatearen arabera lan batzuk egin eta publikatu genituen. Horrela Gara nahiko proiektu heldua eta sortzear zegoen momentua iritsi arte. Garan ez zegoen ikerkuntza taldeari jarraipena emateko kapazidaderik eta bide bat pentsatzen hasi ginen honek zuen garrantziaz jabeturik. Euskal Herriatik eta estatutik mugitzen hasi ginen, batez ere Catalunya, Galizia, Madril ingurua, Andaluzia, Santander, Asturias,...en fin...leku askotatik eta gure lanari jarraipena emateko jendea prest zegoela jakin genuen. Lehendabizi gure lanari izena emango zion gorputza pentsatzen hasi ginen eta Ardi Beltza bururatu zitzaigun gure izaerarekin eta proiektuko helburuekin nahiko karakteristikoak baita. Ondoren editorial bat planifikatu genuen. Editoriala guretzako hiru hitzetan laburtu daiteke: ezkertiarak, independentistak eta solidarioak. Hauek hitzak baino edukiak dira guretzat, gure aldizkari eta liburuetan kontenplazten saiatu garen edukiak, alegia. Dena dela proiektua konplikatu egin da. Helburu gehiago ditugu eta oraindik bide luzea dugula egiteko uste dugu.

BERTON: Zelan gauzatzen da fisikoki Ardi Beltza proiektua? Hau da, zelan da prozesu guzti hartatik ateratako produktu materiala?

AHOZTAR: Urte bakoitzeko hamabi aldizkari hilabetez eta lau liburu dira. Aldizkariak sekzio batzutan banatuta daude, ale batetik bestera egonkorak diren sekzioetan. Guri herriaren eskutik eta herriari interesatzen zaion informazioa biltzea eta publikatzea interesatzen zaigu, gizartean borroka mota asko eta desberdinak aurrera eramaten dituzten taldeak baitaude eta hauek ez direlako inongo egunkari zein aldizkarietan agertzen. Horretarako gizartean dauden arlo desberdinak isladatzeko sekzio desberdinak daude, bakoitzak lau bost orrialde dituelarik. Edukiaren aldetik Euskal Herriko notiziak publikatu nahi genituen, bertotik egindako aldizkari bat delako eta batez ere Euskal Herriari begira. Baina nola Catalunya eta orohar Estatu espainolean eta kanpotik, Argentinatik eta, interesa zegoela aldizkariarekiko, atzerriko notiziak ere atera nahi genituen. Ez soilik kanpoko jende honi begira, euskaldunei begira ere. Albisteak batez ikerkuntzaren ikuspuntutik lantzen ditugu. Gure aldizkarian ez dira egunerokotasunean oinarritutako notiziak agertzen. Guri gehien interesatzen zaiguna gertaerak sakontzea da, horien atzetik zer edo nortzuk dauden, zergaitik diren albiste,... Liburuei dagokienez, hauek gaiak sakontzeko balio dute eta lau liburu kaleratuko ditugu aurtien. Lehenengo presentazio liburu bat izan zen solidarioen inguruan argitaratutakoa.



Bigarrena prentsa larrosaren ingurukoa izango da eta estatu espainoleko egunkari nahikoa famatu bateko ikerkuntza taldean lan egiten duen kazetari batek idatziko du. Prentsa larrosaren funtzionamendua, horren atzetik ze jende eta enpresa dauden, zeintzuk diren prentsa larroseko aktore zein lanzaderak,... Hirugarren eta laugarren liburuak

printzipioz bibliografiak izango dira. Manuel Fragarena eta Espainiako Juan Carlosenak. Denuntzia eta ikerkuntzaren ikuspegitik idatziak izango dira eta autorizazio bakoak.

BERTON: Ardi Beltza eskuratze-komodo bakarra dago, harpidetza. Zergaitik?


AHOZTAR: Ezkerreko proiektu politikoak beti geratu izan dira apur bat herren alde ekonomikoari dago-kionez. Pepe Reik badu esperientzia horretan, plan ekonomiko ona ez izategaitik beren bizitza agortu den egunkari askotara hurbildu delako. Orduan, hori aurreikusita pentsatu genuen zein izango litza-tekeen plan bideratzaile bat gure helburua lortzeko. Horrela, jakitun diren pertsonekin prospekzio batzuk egin genituen eta harpidetza bitarteko aukera jarraitzea erabaki genuen.

Alde batetik aldizkariaren distribuzioak honen prezioaren %50 kentzen duelako eta bestetik distribuzio enpresa handienak BBVA eta Banco Santander multienpresen jabeen menpe daudelako, Botin eta Ibarra-

ren eskuetan. Orduan, hauek ipini ditzaketen oztopoak gainditzeko bide bakarra delako harpidetza. Horrez gain harpidetzak urtean zehar zure aldizkaria erosi eta irakurriko duen jende kopuru bat ziurtatzen dizu.

BERTON: Zenbat harpidedun daude momentu honetan eta zenbat espero zenituzten?

AHOZTAR: Gure printzipiozko plana 10.000 harpidetzara heltzea izan zen urte osoan zehar arazorik ez izateko. Hala ere, nahiz eta hauen atarian geratu garen zorionak eman nahi dizkiegu gure harpidedunei ez genuelako espero hainbeste lortzea. Gaur egun, 10.000tik oso gertu gaude, dena den, guk oraindik topea oso urrun dugula uste dugu, Catalunyan eta beste hainbat lekutan lan asko dagoela egiteko, eta produktua aurkeztu aurretik 10.000 harpide lortzea asko dela iruditzen zaigu. Horregaitik, behin produktua kalean dagoela gehiago lortu behar ditugu. Produktua hobetzen doan heinean gertatzea espero dugu. Momentuz gu zabalik gaude edozein kritikara



eta horretarako aldizkarian txoko bat dugu. Jada kritika batzuk jaso ditugu hizkuntza eta ortografiaren ingurukoak. Baina bueno, arazoak gainditu behar dira eta guk apuntatzen ditugu gero horiek kontutan hartzeko.

BERTON: Harpidetzaren ehuneko handi bat Euskal Herritik kanpoko omen da.

AHOZTAR: Beno, ehuneko handi bat baino, ehuneko majo bat esango nuke nik. Bai egia da. Gu orain prospekzionatzen ari gara euskaraz edizio oso bat ateratzeko baita katalaneraz ere. Eta hirugarren zenbakian hain zuzen ere iragarki bat aterako dugu galdetzen jendeari ea nola ikusten duen eta zenbat izango garen euskaraz soilik ateratako aldizkaria irakurriko dugunak. Eta zenbat diren Catalunyan edo estatu osoan katalaneraz irakurriko dutenak.


BERTON: Zer egin beharko luke norbaitek Ardi Beltza etxean jaso nahi balu?

AHOZTAR: Eta dirurik ez balu adibidez?

BERTON: Adibidez.

AHOZTAR: Batez ere hiru sektoreen galderak eta aldarrikapenak heldu zaizkigu. Gazte ikasleak dira horietariko bat. Oraindik ez dugu problematika osoari emango dion erantzun orokorrik pentsatu, baina gazteen arloan ikusi dugunaren arabera posibilitate asko daude. Esaterako, kuadrilaka egitea harpidetza.

Beste sektore bat presoak eta errefuxiatuak izango litzateke. Nola helarazi hauei aldizkaria. Orduan egun



BEDERATZI GALDERA LABUR

Abesti bat? AC/DC taldearen edozein. Euskaraz, Pilt-en "Hil da Jainkoa".
Idazle bat? Gabriel Aresti.
Liburu bat? Huxleyren "Un mundo feliz".
Euskal Herriko herri bat? Santutxu.
Izen bat? Erlantz.
Zer da gehien estimatzen duzuna

persona batengan? Zintotasuna. **Eta arbuiatzen duzuna?** Ez posionatzea, apolitikokeria esate baterako.
Zer albiste eman gurako zenuke? Euskal Herriaren independentzia.
Zer oparituko zenioke Garzón epaileari? Bera eta ustelkeria lotzen duen albiste bat.

jende askok egiten duena da, bere izenean egin harpidetza eta presoari, errefuxiatuari edo dena delakoari pasatu aldizkaria.

Hirugarren sektorea kanpoan bizi den jendea da, atzerrian. Kanadan, EEBBetan, edo leku horietan dauden Euskal Etxetara iristeko,...Beno, ba horretarako ere beste prospekzio sakon bat egiten ari gara baina printzipioz interneten bitartez nahiko harpidetza egin dira.

Aipatutako sektore hauek nahiko adibide adierazgarriak dira, hala ere, badaude gehiago eta problematika horri erantzun osoa eta bate-

ratua zelan eman pentsatzen ari gara.

BERTON: Elkarrizketa amaitzeko, hemen esandakoaren inguruan edo aipatu barik utzi dugun beste ezer komentatu nahi duzu?

AHOZTAR: Eee, bai. Ez dakienarentzat esan, lehenengo aldizkaria duela hilabete atera zela eta bigarrena ateratzear dagoela. Printzipioz 12.000 pezeta direla baina guk horien truke ez dugu hutsala eskaintzen. 120 orriz osatutako hamabi aldizkariz eta lau liburuz osatutako produktua.



jo ta ke
Otxarkoaga
euskaldundu arte!
Pa... Yak baditu alternatibak
demokratikoak noski!!

MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak


DOLARETXEKO BEHEALDEAN ETXEA ETXEA ETA ALDAPAN BERDEGUNEAK NAHI DITU UDALAK

Trenbidea estali, lur azpiko aparkalekua eraiki, paseoa atondu eta errepidea zabaldu gura du

Dolaretzeko orubeko behealdean eraikiko diren 82 pisuen etekinez finantzatu nahi ditu Udalak alderdi honetako urbanizazio lanak. Egitasmoa gauzatu ondoren Eusko Treneko bidea estali, aldapak parke gisa atondu, lur azpian aparkalekua prestatu eta etxeen ondoan plaza bat irekiko du Prim kaletik hasita Artagan muinotik gora zabaltzen den eremu sasitsuan. Inguruetako auzoek alderdi osoa lorategi bihurtu dezan eskatu diete udal arduradunei behin eta berriz.

Prim kaleko hasierako zatiaren ezker aldean, txalet hutsen ostean, zuhaitzez eta sastrakez jositako orube zabal bat dago. La Cruz, Begoñako eleizaldea eta Dolaretxe auzoak ditu mugakide. Inguruak etxez gainezka badaude ere, ibarbide honek hutsik iraun du hainbat urtez, bere aldatz lauzen ondorioz seguruenez.

Bilboko Plan Orokorraren asmoek huts egin eta gero, Udalak beste proiektu bat enkargatu zuen. Iñaki Azkunaren gobernu



Orain arte, sasiz beteta egon da Dolaretzeko ibarbidea

taldeak hiri barruko "zulo" hau ezabatu eta haren ordez Begoña eta Zazpi Kaleen arteko harremanak erraztuko dituen hiri-alderdi bat egokitu nahi du.


Udal arduradunen irizpideak oinarri hartuta, Emilio Puertas arkitektoak Dolaretzeko orubearen itxura guztiz aldatuko duen

egitasmoa diseinatu du. Plan berriak eremu honetako behealdean -lau den alderdi- ekimen pribatuak 82 pisu eraiki ditzan gordetzen du. Operazio honetatik lortutako etekinez finantzatu ditu Udalak gainerako aldaketak.

TRENA ESTALI

Proiektuak Eusko Trenen trenbideak eragiten duen hesi urbanistikoa gainditzeko asmoz burdinbidea estali eta haren gainean paseoa egokitzea proposatzen du. Etorbide berri hau 120 metroz luzatuko da, Unamuno plazaren atzealdetik Dolaretzeko orubearen erdi-erdiraino. Prim kaletik metro batzuk altuago egongo da, trenak azpitik igaro ahal dezan.

Behealdean eraikiko diren pisu blokeen artean plaza bat atonduko dute eta euren ostean, Amadeo Deprit kaleraino muinotik gora igotzen den eremu aldatua parke bihurtuko du Uda-



berdegunea + ikuspegia

berkin

Mahatsberriak


lak. Berdegune honen zabalera 14.000 metro karratukoa izango da.

Goialdean bizitza publiko eragiteko asmoz ideia batzuk darabiltzate udal arduradunak. Negutegia edo garagardotegia zabaltzea izan dira horietarik batzuk. Gainera, Deprit eta Batalla de Lepanto kaleetako espaloiek Zazpi Kaleen gaineko balkoiarena egingo dute. Bestalde, parkean zeharreko bide batek Prim eta Dolaretxe lotuko du.

Prim kalea bera ere zabalago egingo dute gaur egun trenbide ondoan dagoen harresia bota ostean. Eta proiektua osoago izan dadin lur azpiko aparkaleku bat eraikitzea ere pentsatu dute udal arduradunek. Bertan 400en bat auto sartu ahalko dira. Plaza horietarik 100en bat inguruetako biztanleentzat gordetzeko asmoa dute.

Plan hau aurrera eramateko trenbideko harresia ez ezik ondorian dauden txalet zahar hondatuak ere eraitsiko ditu Udalak.

Proiektu osoaren tramitazio administratiboa azaroan edo amaituko da. Horren ostean obrak hasiko dira.



ASMOAK ASMO

Bilboko Udalak 1992an Dolaretxerako bestelako proiektu bat onartu zuen. Orduan ere filosofia bera erabili zuen, ekimen pribatuari eskaintako negozioaren truke lortutako etekinez finantzatu nahi baitzuen Josu Ortuondoren ekipoak orube osoaren urbanizazioa.

Orduan pil-pilean zeuden merkatalgune handi horietariko baten erreklamo jarri zuen Udalak. Haren gerizan etorri behar zuten Dolaretzeko ibarraren egokitze lanek. HBko udal taldeak espekulazio operazio gisa salatu zuen. Ibon Areso (EA) zinegotziak ukatu egin

zuen. Haren ustez proposamena ez zen behar bezain interesgarria ekimen pribatuaren begietara eta gatikusten zuen enpresaren batek proiektua bere gain hartzea. Iritziak iritzi, azkenean proiektua ez zen egin.


Udaletik horrelako proposamenak luzatzen ziren bitartean, Dolaretxe inguruetako auzoek orube osoa parke bilaka zezan eskatu zioten. Gainera, bertan dauden arbola eta landare mota batzuk nahikoa bereziak direla argudiatuz, lorategi botanikoa egokitze ideia bultzatu zuten.

ANGEL

HARATEGIA - URDAITEGIA



Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59



S.M. Ascension plazan
Santutxu

Baserritik
etxerainoko
OKELA ZERBITZUA

Eskera eragiteko:

- Telefonoa eta Faxa: 94 433 48 02

- Ordutegia: 10:00etatik 13:00etara eta
16:00etatik 19:00etara

E.H.N.E.

BASERRITIK ETXERA: EUSKO ZERBITZUEN ZERBITZUA
Euzko Zerbizuen Zentroa, 11. 48.300 LEIOA. Tfnoa: 94 631 43 04

PP ETA PSOE EUSKARAREN AURKA, BESTE BEHIN

Bilboko Udalak martxoaren 2an egindako osoko bilkuran PP eta PSOE euskararen aurka oldartu ziren beste behin. Batetik, talde biok Pagasarri mendi tontorreko aterpeko zerbitzua euskaraz izan dadin hartutako neurriaren kontra agertu ziren. Bestetik, PPK desagertze bidean dagoen A eredu erdalduna atzera be Bilboko bazter guztietan eskaintzeko proposamena egin zuen. PSOEk alde bozkatu zuen Ezker Batuak abstentziora jo zuen bitartean. Hala ere, batean zein beste euskararen aurkako jarrerok ustel suertatu ziren, udal batzarraren gehiengo euskaldunon hizkuntzaren alde azaldu zen eta.

BEGOÑAZPI IKASTOLARI ERASO

Txurdinagako Begoñazpi ikastola eraso zuten otsailaren 27ko gauean. Iluntzeko bedera-tziak aldera koktel molotov bat jaurtiki zuten ikastolak Errekako kalean daukan eraikuntzako leiho baten kontra. Ondorioz, pertsiana eta leihoko markoan kalte txikiak eragin zituzten.

BEGOÑA ALDEAN TRAFIKO MOZKETA

Martxoaren hasieran Zumalakarregi, Begoñazpi eta Lezamako Bide Zaharra kaleetako auzoek trafikoa moztu zuten Zumaia kaleari orain gutxi ezarritako norabide bakaerreko aginduaren aurka protestatzeko asmoz. Inguruetako bizilagunen kexak trafiko norabide berriek buelta handia ematera derrigortzen dituela dauka oinarrian.



PLAZA BERRI BAT SANTUTXUN

Santutxuko jubilatuen etxearen ondoan dagoen orubean enparantza berri bat eraikitzeko lanak hasiko dira. Lanen hasiera maiatzerako iragarrita dago eta ondorioz, orain arte aurkezten zuen egoera tamalgarria alde batera utzi eta behar bezala urbanizatuko dute. Bertan, iturri bat eta hainbat zuhaitz eta jesarleku jarriko dira. Lanak, abuztuan bukatuko dira eta 90 milioiko inbertsioa suposatuko dute. Era berean, Udalak gaur egun dauden kaleargiak kendu eta 24 puntu argi izango dituen sarea ezarriko du.

APARKALEKU BERRIA SANTUTXUN

Bilboko Udalak Santutxun lur azpiko aparkaleku bat eraikitzeko tramiteak abian jarri ditu. Udal teknikariek egindako proiektuak Iturriaga, Iturriagako zeharkalea, Cocherito de Bilbao eta Torre Gorostizaga kaleen artean kokatzen du aparkalekua. Izan ere, aipatu kaleen artean dauden etxeen barrualdeko patioaren azpian atondu nahi dute. Udalak patio barruan dauden arbolak eta berdeguneak bermatzeko neurriak hartu ditu. Gainera, baliteke obrak amaitu ostean patioan umeen olgetetarako edota kiroletarako instalaziorik egokitzea.

PRESOEN ALDEKO AKANPADA MUGAGABEA RITXI PLAZAN

Euskal preso politikoen kolektiboak duela lau hilabete aurrera daraman borrokaldiarekin bat eginez, Mahatserriko bi auzokidek gose grebari ekin diote Euskal Herrian zabalduko prozesuan parte hartu ahal izateko. Hala, betetik, Ocaña II espetxean dagoen Agustin Almarazek hamahiru eguneko gose greba egin ondoren, arazo fisikoak zirela eta, utzi behar izan zuen. Bestetik, Juanlu Camarero martxoaren 12an ekin zion gose grebari Madrid II-ko espetxean. Presoek hasi beharreko borrokarekin bat egiteko asmoz, Ritxi enparantzan auzokoen grebak irauten duen bitartean, akanpada mugagabea antolatu dute. Bertan, hainbat ekitaldi antolatzen da egunean zehar presoek jasaten dute egoera larria salatzeko, eta Euskal Herrian zabalduko prozesuan parte har dezaten aldarrikatzeko.



BEGOÑAKO AMA BIRJIÑAREN KOROAPENAREN MENDEURRENA

Honez gero hasiak dira Begoñako Ama Birjiñaren koroapenaren mendurrenaren ospakizunak. 1900eko irailaren 8an santutu egin zuen Elizak Bizkaiko patroia den Begoñako Andra Maria. Koroa, aurreko alean Gotzon Loberak agoratu legez, Maria Agirre andreak ordaindu zuen. Ehun urte beluago gertakizun hori gomutara ekarri nahiz hainbat

ospakizun gauzatuko dira urte osoan zehar. Dagoeneko kalean da Ama Birjiñari eskainitako abestiak batzen dituen CD-a. Bertan partaide izan direnen artean Zornotzako Korala, Arrigorriagako Albaraka, Basauriko Sociedad Coral eta Anton Juaristi, Begoñako organojolea aita litezke. Denak, Pedro María Aldanaren agindupean.

ZURI BALTZA HIRUGARREN


Azkenik bukatu da aurtengo xake liga eta Santutxuko Zuri Baltza taldeak hirugarren postua lortu du. Santutxuko taldeak, Donostiako IKE-Gros taldeak bezala, liga 29 punturekin bukatu du, Peña Rey Ardid irabazlearengandik puntu batera. Euskal Ligako azken jardunaldian, santutxutarrek 3-1 irabazi zioten Iruñako Oberenari, baina ezin izan zuten lidergoan zegoen Peña Rey Ardid harrapatu. Datorren urterako berrikuntza nagusia bigarren mailaren agerpena izango da.

Bazkide txartela

Izen deiturak: _____ ENA zenbakia: _____

Heltbidea: _____ Herria: _____ Posta kodea: _____

Telefonoa: _____ Lanbidea: _____ Jaioteguna: _____



ASAPALA
KULTUR ELKARTEA

Iturriaga 55-1 Ezkerre 48004 Bilbo
Telefonoa: 94.6735448
E-posta: asapala@euskalnet.net

Partehartze mota:

Bazkide soila

Ekintza jakinetan laguntzaile

Lantaldeko partaide

Ordainketa:

Kontu korrante bidez

Asapalaren kontuan

3035 0071 6 071 105864 - 2

Kuota korrante bidez

500 pta

1000 pta

2000 pta

_____ pta

GOMAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

Telefonoa:
(94) 669 32 79

Mugikorra:
908- 45 16 22



SANTUTXU SPORT

E R R I K A R I A K

E R R I K A R I A K

HAUR ESKOLAK MAHATSERRIAN (II)

Aurreko alean aipatu genizuen bezala oraingo honetan haur eskolen gaineko bigarren atala aurkeztuko dizuegu. Lehenengo atalean udalak dituen asmoez eta beronek bultzatutako Francisco de Goya haur eskolaz idatzi genizuen. Hogeigarren ale honetan, berriz, Alai eta Seintxu haur eskola euskaldunetz arituko gara zuen intereseko izango delakoan.

Sei urtetik gorakoentzat da derri-gorrezko hezkuntza gaur egun, hala ere ume ia ia guztiak 2-3 urte bitartean eskolatzen dira. Bi urtetik sei urtera bitarteko zikloak mahatserriko eskola guztietan dauzkagu. Batzuetan 4 hilabetetik aurrera haur eskola daukate eduki. Guztiarekin ere 3 urtetik beherako haurerentzat eskaintzen dena ez dago araututa eta are gutxiago normalizatuta. Egoera erabat aldatzen da leku batetik bestera. Tarte hori bi haur eskola euskaldunek betetzen dute mahatserrian ALAI (Zurbaran) eta SEINTXU (Santutxu). Eskoletan 3 urteko gelak irekitzeak kalte egin badie ere urte askoko eskarmentuak kalitatezko heziketa bermatzen du.



LOGSE

1990ean onartutako logse legean oinarritzen da Haur Hezkuntzako lehenengo urteen garapena. Bertan esaten da administrazioak bere gain hartu behar duela ziklo horien garapena. Arautzeko epea 2002. urtean amaitzen da.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOARI BURUZKO LEGEA

9.2- Hezkuntza administrazioak, gainerako administrazioekin eta gizarteko eragileekin lankidetzan, eska dezaten guztiak arian-arian zero urterekin eskolatzea ezarriko du, haurrak eskolatzeak aukeren berri emanez hezkuntza munduko alor guztiei. Nolanahi ere, ezarpen prozesuan lehentasuna izango

dute gizarte eta ekonomia maila apaleneko aldeak eta, orokorrean, hezkuntzako behar bereziak edo hizkuntzakoak dituzten ikasleek.

9. atalean adierazi den zero urterekin eskolaratzeko helburua iristeko, eskolaratze horretaz arduratuko den irakaslegoaren prestakuntzaren plangintza egiteko beharrezko neurriak hartuko dira.

ALAI HAUR ESKOLA

Orain dela 25 urte, Poxpolin haur eskola sortu zen. 1984ean izena aldatu zioten eta gaur egun ezagutzen dugun ALAI haur eskola bilakatu zen. Geroztik hainbat eta hainbat ume igaro dira Zumaia kaleko 22tik. Urte hauetan guztietan oso egoera ezberdinak bizi izan dituzte, orain dela 15 urteko gela bete beteetik oraingo egoera ez samurrera beste haur eskola guztietan bezala. Hiru dira kalte gehien egin dizkieten faktoreak: alde batetik ume gutxiago jaiotzen dira, bestetik eskola ia gehienetan 2 urteko gelak zabaldu izana eta azkenik administrazioaren laguntza eta sentsibilitate eza.

Otxarkoagan udalak zabaldu berri duen haur eskolaz kritiko azaldu ziren, batez ere udaletatik ez delako inor hurbildu gutxienez euren iritzia galdetzeraz. Izaskunek eta garbiñek, bertako andereñoek, saminez gogoratzen zuten nola orain dela 15 bat urte ume asko zeudela eta behin eta berriro eskatzen zioten udalari haur eskolak zabalteko. Inork ez zien jaramonik egin. Orain, ordea, ume gutxi izanda eta eskoletan 2 urteko gelak zabaldu-

ta, oraintxe ekiten dio udalak haur eskolak zabalteari. Hala ere euskarazko haur eskolak dira Bilbon lanean diharduten bakanetakoak. Asko eta asko bidean lotu dira. Zalantzarik gabe Mahatserria da arlo honetan tradizio gehien daukana. Alai gaur egun 30 ume dauka eta ari-tzen diren 4 andereñoak 3 gelaz, jantokiaz eta logelaz arduratzen dira. Hasi zirenean, gogoratzen digute, 55 ume zeuzkaten.

ALAI HAUR ESKOLAKO FITXA TEKNIKOA

HELBIDEA ZUMAIA 22
TELEFONOA 94 4457508
ZENBAT UME 30
ZENBAT IRAKASLE 4
GELAK 4
LOGELARIK BAI
JANGELARIK BAI

JANARIA BERTAN EGINA
EGOERA PRIBATUA
ORDUTEGIA 7:30-6:30
LUZE ZABALA + 200 m2
JOLASTOKIRIK BAI
GARRAIORIK EZ

SEINTXU HAUR ESKOLAK 25 URTE BETE DITU.

Seintxu Haur eskola orain dela 25 urte sortu zen mahatserriko Santutxun. Guraso talde batek beraien seme-alabak gazte gaztetatik euskaraz heztearen premia ikusi zuen. Ekiten hau irabazirik gabeko elkartetzat gauzatu zen eta gaur egun horrelaxe dihardu. Zentruaren kudeaketa, beraz, irakasle eta gurasoen esku dago batzorde baten bidez. Batzorde hau bost gurasok eta bi irakaslek osatzen dute.

1974ean Karmeloko lokaletan hasi zirenetik hamaika lanetan aritu behar izan dute lokalak atontzen eta bestelako lanak egiten. 20 urte pasa dira Santutxu kaleko lokalera etorri zirenetik, lehenengo alokairuan eta geroxeago esfortzu ekonomiko handia eginez erosi zuten. Arazo ekonomikoak larriak izan dira baina elkarrearen izaerari esker, hau da, aberasteko asmorik gabeko elkarrean delako gaitzitu egin dituzte. Gogoratu egiten ziguten nola aurreko urtean 500.000 mila pezeta jaso zuten epai batek euren aldeko ebazpena eman zuelako. Kontua da aseguratza sozialarekin hitzartuta zegoen zorra kitatzea zela eta administrazio-tik isun bat jarri zieten, zorionez batzordeko gurasoen artean abokatu bat zegoen eta egindako bidegabekeria ikusita errekurto bat aurkeztu zuen euren aldeko epaia joaz. Diru hori oso ondo etorri zaie eskola margotzeko eta beste konponketa batzuk egiteko.

Gaur egun bertako umeen adina 4hilabeetatik 3 urtera bitartekoa da, nahiz eta hiru urtekoetan kopurua mehetu egiten den. Haurrek entzuten eta hitz egiten duten hizkuntza bakarra euskara da.

Seintxu Haur Eskolako oinarritzko helburuak hauexek dira:

- Umearen gaitasunaren garapen osoa.
- Euskara lantzea, irakaskuntza elebiduneko ereduatarako zubi izan dadin.
- Guraso langileen beharrezko konponbide bat ematea, euren umeen premia guztiei erantzunez.



Bilboko udalarekin aspalditik izan dituzte harremanak, bai diru laguntzen bidez (txikiak egia esanda), bai urtetik-urtera euren haur eskola udalako-tzeko gogoia adieraziz. Eskarera 1984, 1988, 1991 eta 1993. Urteetan egin dituzte. Azken urteotan bilerak izan dituzte eta beste

sentsibilitatea nabaritzen dute udalaren aldetik.

SEINTXU HAUR ESKOLAKO FITXA TEKNIKOA:

HELBIDEA SANTUTXU 40
TELEFONOA 94 4336044
ZENBAT UME 27
ZENBAT IRAKASLE 4
GELAK 3
LOGELARIK BAI
JANGELARIK BAI

JANARIA BERTAN EGINA
EGOERA Aberasteko asmo-
rik gabeko elkarrean
ORDUTEGIA 7:30-7
LUZE ZABALA 287m2
JOLASTOKIRIK BAI
GARRAIORIK EZ

Haurtzaroaren beharrei erantzuteko asmoz eta zerbitzu publiko izateko bokazioarekin sortutako HAUR ESKOLEN KOORDINAKUNDEAREN inguruan antolatu ginen orain dela hogei urte baino gehiago.

Koordinakunde honek, LOGSE kaleratu baino lehenago, ume txikien ezaugarriak, curriculum, ikastetxeek bete behar zituzten baldintzak eta abar ikertuz Haur Hezkuntza etaparen definizioan gogoz lan egin zuen.

Gaur egun gure autonomi erkidegoan bi faktore direla medio oso egoera berezia sortu da. Alde batetik, bi urteko umeen eskolatzea guztiz zabaldua dago publikoan, eta, beste aldetik, lehenengo zikloaren eskeintza ikastetxe pribatuetan ere hedatuz doa. Honekin batera haur eskolek udaleetatik eta diputazioetatik jasotzen genituen subentzioak gero eta murriztuagoak edo hutsaren ondorengoak dira. SEINTXU haur eskolaren etorkizunari dagokionez, Bizkaiko beste haur eskolak bezala, administrazioaren eskutan dagoela uste dugu. Gurea bezalako zentruak 25 urtean egindako lana kontutan hartuta Hezkuntza saila izan beharko litzateke ziklo honetaz arduratzen dena.

Etapaz haur heziketa bezala normaltzea guretzat konponbidea izango

litzatekeela uste dugu. Beste etapetan administrazioa eta ikastetxe pribatuaren arteko akordioak dauden bezala, gurean ere hori bera gerta daiteke, gure bokazio publikoak kontutan izanik. Konponbide desberdinak daude:

- 1.- Hezkuntza saila etapa honetaz arduratzea
- 2.- Bilboko udalak zentroa udalagotzea (askotan luzatu dugun eskolara)
- 3.- Aldundiak, udalak eta gurasoek ziklo honen ardura hartzea, Gasteizen, Iruñan bezala udalagotzea diren haur eskolak asko dira azpimarratu nahi dugu. Gipuzkoan ere akordioak daude hemen proposatutako hirugarren irtenbidearen ildotik. Edonola ere, itxaropentsuago gaude une honetan Bilboko udalak aruten diru laguntza txiki bat eman digulako, haur eskolekin sentsibilizatuago dagoen seinale. Bestalde, etapa honetako umeen euskalduntzean gurea bezalako zentruak ezinbestekoak direla uste dugu. Instituzioek BAI EUSKARARI diotenean soilik manifestu bat sinatzea baino konpromiso aktiboagoa hartzen dutela pentsatzen dugu.

MARIAN FERNANDEZ
SEINTXU HAUR ESKOLAKO LANGILEA

DAYTON
Reagge-festa
taberna
Santutxuko poteo gunean


ekilore
Iturriaga, 92 Santutxu

BASTERTXU

TABERNA
Ricardo Bastida plaza

ALUITZ (1.068 m.) Axpetik

Axpe herrira heltzeko, Durangotik Elorriora doan bidetik abiatuko gara, Apatamonasteriora heltzerakoan eskumalderantz doan errepidetik Axperaino heldu arte. Hemen utziko dugu kotxea.


Enparantza eta eliza ondoan, eskuinetik, "Olazabal" auzora doan errepide asfaltatua irten da. Kilometro batetara, eskuinean dagoen pista bateatik pinudira sartuko gara (A) (hamar minutu). Pista honetatik jarraituz gurutzbide handi batekin egingo dugu topo (B) (hamabost minutu). Ezkerreko pista hartu eta pinudi barrutik, ia mendikate hormara helduko gara (hamabost minutu).

Hemen pista ugari dagoenez, goikoen artean eskumalderantz doana hartuko dugu, horma ondoan eta harri tartean doan bidezka lortu arte (hamar minutu). Bidezka hau aldapa gorantz estutzen doa "Aluitz" eta "Aitz-txiki" menditarteko maldara irten arte (hamar minutu).

Bide berbera galdu gabe, aipatutako bi mendien tartean dagoen "Artola" leporaino (564 m.) igongo gara (hamar minutu) lepora heldu baino lehen iturri bat dago ezkerrean eta harri tartean. (C) Lepoan bertan ezkerredera joko dugu beti gorantz, eta laster ikur zuriak ikus daitezke harri tartean. Orain aldapa oso gogorrean joango gara tontorra lortu arte (hogeitamabost minutu) "Aluitz" (1.068 m.)

Itzulera ez genuen bide bardinetik egin, baizik eta haitzez haitz eta gailurrez gailur jarraitu genuen aurrera.

"Inpernuko zubie" edo "Deabruaren Igarobidea" deitzen zaion tokian aurkitu arte, (kontuz hemen arriskua bait dago), - aurrera jarraituz "Larrango Urkulu" (951 m.) zeharkatu ondoren, beti pago eta serbalan artean ibiliz, "Larrango" lepoan (960 m.) kokatuko gara (ordu bat eta hogeitaz minutu).



Eskumalderantz begiratzen badugu "Asuntze-ko" iturria eta Urkiolatik datorren pista ondoan dagoen aterpe irekia ikus daitezke. Aterpe honetara heldu baino lehentxoago eskumalderantz doan basapista hartu eta Atxarterantz joango gara. Beherantz goazela lberdueroren elektra hariteria daraman dorre handi bat ikusiko dugunean, bera jarraituko dugu eskumalderantz eta gorantz "Artola" lepora lortu arte (ordu bat eta hamar minutu). Hemendik Axpera etorritako bidetik joango gara.

ERRITMOZ BETERIKO GIMNASIA

Otxarkoagako Udaltegiaren gimnasia erritmikoko klaseak ematen zazpi urte baino gehiago daramate. Musika eta soinketa biltzen dituen kirol honek, beraz, lekutxo bat bilatu du Mahatserriko gazteen artean. Gu, azken lau urteotan Otxarkoagan klaseak ematen aritu izan den Susana-rekin solasean aritu ginen.

☞ Unai Cuevas



Astelehenetik ostiralera, bostak eta laurdenetatik zazpirak eta laurdenetaraino gimnasia erritmikoko klaseak ematen dituzte Otxarkoagan. Susanak esan zigun moduan "beroketa ariketekin hasten gara, ondoren teinkadak egiten ditugu, jarraian jauziak, geroago koltxonetan aritzen gara, bizkar ariketak egiten ditugu ... orohar, gauza ugari eta ezberdinak egiten ditugu". Gauza guzti hauek taldeetan banaturik egiten dituzte. Hiru talde ezberdinetan banatzen dira gimnasia erritmikoko praktikatzeko orduak: astelehen, asteazken eta ostiraletako lehenengo ordua (17:15tik 18:15raino) talde bati dagokio; egun berdinetan baina bigarren

orduan beste talde bat aritzen da eta hirugarren taldeak astearte eta ostegunetako denbora tartea betetzen du. Orotara, 30tik gora ikasle aritzen dira hiru talde horietan banaturik.

Adinari dagokionez, gazteenak lau urte besterik ez ditu eta nagusienak, bestalde, 15 urte. Hala ere, gehienak 9-12 urte bitartekoak dira. Bitxia iruditu daiteken arren, aipagarria da klase hauetan mutilek ere parte hartzen dutela. Bi dira hain zuzen ere eta Susanak azaldu zigunez "soinketa mota hau praktikatzeko adin onean dauden 9-10 urte bitarteko mutikoak dira". Neskato eta mutiko guztiak inguruko auzoetakoak dira, batez ere, Txurdinaga eta Otxarkoagakoak.


Bitxia izan daiteken arren neska guztien artean mutil bi daude

Gimnasia erritmikoko irakas-orduak Bilboko Udaltegi ezberdinetan ematen dira eta Otxarkoagako monitoreak azpimarratu nahi izan zuenez "gauza bat kiroldegiak dira eta beste gauza bat auzo-etxeak". Bien arteko konparaketa eginez, "auzo-etxeak kalitate eta prezio baxuagokoak dira, kiroldegien aldean beste maila batetan kokatuta daude" aitortu zigun irakasleak. Honen adibide gisa esan beharra dago Otxarkoagan hilabetero 1.400 pezeta ordaintzen dituztela. Kirol-

degi batetan, aldiz, 6.000tik gora. Gainera auzo-etxeetan ez dute matrikularik ordaindu behar. Baina, bestetik, azpiegitura eskasak jabe izaten dira zentru hauetan. Susanak adierazi zigunez, berogailurik egon ezean aurtengo neguan hotza pasatu dute. Horretaz gain, nahiz eta aurtun sabaia konpondu dieten, itoginik ere izan dute gimnasilekuan.

EKAINEAN AGERRALDIA

Ez dute inolako txapelketetan parte hartzen, baina hala eta guztiz ere erakustaldiak antolatzen dituzte. Hori bai, beti ere udaltegien arteko mailara mugatuz. Kanpoan erakustaldiak emateko baimena behar dute, materiala erosteko diru faltagatik eta gaztetxoak leku batetik bestera eramateko garraio gabeziagatik oso zaila egiten zaie baietza lortzea. Ikuskizun bat antolatzeko momentuan dituzten zailtasunen eredu argia gabonetan emandakoa dugu. Agerraldi hau aurrera eramateko, gimnasioa uzteko baimena eskatzeaz gain, zentruko zuzendaritzaren onespena behar izan zuten eta musika ekipoa jartzeko baietza behar izan zuten ere. Traba guztiak direla medio, arrakastatsua izan zen guraso ugari bildu baitziren. Kurtso amaierarako beste erakustaldi bat prestatzekotan daude. Seguruenik, ekainaren 24an burutuko da eta bertan urtean zehar prestatu eta entseatu dituzten ariketa guztiak ikusi ahal izango dira: uztai, pilota, zinta eta soka ariketak, besteak beste.



"Lau urteren buruan Santutxun seguruenik hogeitrikitilari ibiliko dira kaleetan zehar"

Mahatserrian mota guztietako musika jotzen da. Oraingo honetan soinua eta panderoa entzuteko aukera izan dugu Karmelo Ikastolan.

↳ Iratxe Ruiz
↳ Erdoitza Martinez



Duela hiruzpalau urte trikitixa ikastaroak martxan jarri ziren Karmelo ikastolan Kepa Alañaren eskutik, bertoko ikasle baten aita dena. Eskola hauen lehendabiziko helburua umeak txikitatik eskal musika bereganatzearena izan zen. Gaur Gaizka Benguria eta Xabier Aburrazaga arduratzen dira panderoa eta soinu klase-

taz. Azken honekin egon ginen eta ikasleak ez ezik ostegunetan irakasleago saioetan parte hartzen duela aitortu zigun: "Hau ere inportantea da, egunero klaseetan umeekin jolasak egiteko".

Trikitilari honen aburuz garrantzitsua da txikitatik musika ikastea, baina jendeak gero eta gutxiago

daki honen inguruan. Horrela trikitixa ikasketak mugatuak egon ez daitezenez metodo berriak asmatu dira: zenbakiak notak laguntzen, puntuak,... erabiliz. Badirudi gure gizartean futbola eta antzeko ekintzek musika ikasketei bere garrantzia kendu diotela: "Egia da gero eta musika gehiago entzuten dela, baina, aldiz, gero eta gutxiago jotzen da. Trikitixa modan beti egon da, baina orain boom bat dugu Kepa Junkera, Gozategi anaiak, eta antzeko trikitilarietarako...Hala ere boomak ez dira onak izaten ez baitira betiko".

Aipatu beharrekoa da esku-soinuaren kasuan, zein beste instrumentuen kasuan gurasoen ikasteko inposaketak suposatzen duena: "Ez da berdina aita-amak



behartuta jotzera datorren umearen jarrera, edo bere kabuz hona datorrenarena. Hala ere, hasiera batean normala da gurasoek lehenengo pausua emotea, baina urteak pasa ahala bakoitzak bere erabakia hartu beharko du. Ikasteko grinarekin datorren umeak agian urte batzuk barru Santutxuko kaleak girotuko ditu. Nork daki Kepa Junkeraren bat gure artean dagoen?"

Beraz, badakizue esku-soinua jo eta panderoa astindu nahi izanez gero aukera paregabea suertatzen zaizue orain. Nahiz eta Karmeloko ikasle eta irakasleentzat zuzenduta dagoen ikastaroa izan, ikastolatik kanpoko auzokideok ere atek zabalik ditugu.

Honekin konbentzitu ez ba zaitugu, baina euskal musika gustukoa ba duzu, maiatzaren amaieran, urtero legez, saioa ospatuko dute ikasle orok. Etzazu galdu!! Bertonen informatuta izango zaitugu!

KLASE ORDUTEGIA:

Asteartetan: 17:00etatik aurrera (ordu pare bat)
Asteazkenetan: 17:00etatik aurrera (ordu pare bat)
Ostegunetan: 13:00-14:00 (irakasleentzat).
17:00etatik aurrera (ordu pare bat)

Biktimenganako Laguntza Zerbitzua / Servicio de Asistencia a la Víctima

Zeurekin gaude

EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN EIA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Giza Eskubideen eta Justiziarik gabeko Lanidetzarako Zuzendaritza / Dirección de Derechos Humanos y Cooperación con la Justicia

ASAPALA
KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabiltza

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org

Gelaya INMOBILIARIA
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA-SALMENTA - ALOGERAK - ...

Iturriaga, 92
Tfnoa. 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo

Bikoitz
ARROPAK ★
ZILARRA ☾
OPAZIAK ★
Part. Arsuaga SANTUTXU
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO

ZURE PUBLIZITATEA HEMEN
94 473 54 48

horoskopoa



Hainbeste ikasi ondoren orain duzu aukera ondo pasatzeko. Kontuz ibili kalimotxoarekin eta edurretara bazo az erabili protekzioa!



Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra. Hurrengo urteko San Balentin eguna bakarrik igaro nahi ez baduzu,... has zaitetz dagoeneko "arrantzan"! Ekonomia zaindu!



Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra. Nahiz eta lan edota ikasketetan momentu txarra pasatzen ari zaren, maitasunari dagokionez bikain egongo zara. Aprobetxatu, ez da betiko izango!



Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra. Zure arazoetaz arduratzea ondo dago baina ingurukoek ere kontutan hartzea komeni da. Ez zaitetz zure burura mugatu eta lagunak zain itzazu!



Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra. Une honetan duzun "laguntxoa" ez da zure laranja erdia eta laster konturatuko zara. Uste baino gertuago egon daiteke aldiz, eta berarekin harremanak hastea zure esku egon daiteke,...



Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra. Familia arteko liskarrak guztiz arruntak dira. Ez zaitetz horretaz gehiegi arduratu, denborarekin konponduko baitira. Atzerrian bazaude: animo, laster bueltatuko zara gure artera eta!



Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra. Osasun kalteak izango dituzu nagusi. Zergatik? Asteburutan zer egiten duzun jakingo duzu. Edo ez duzu gogo ratzen? Igande goizetako aurpegia begiratzea baka rrik,...



Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra. Beste hainbestetan bezala lagun ona zarela argi utzi duzu. Honi esker, arazoaren aurrean haien laguntza izango duzu.



Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra. Beste hainbestetan bezala lagun ona zarela argi utzi duzu. Honi esker, arazoaren aurrean haien laguntza izango duzu.



Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra. Urte hasieran egin zenuen promesa jadanik hautsi duzu. Ez zaitetz larritu urtea ondo joango zaizu eta. Dena den dakizun hori uzteak ez dizu kalterik ekarriko.



Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra. Maitasuna zure bizitzan sartuko da pentsatzen duzun baino lehenago. Bestalde, arazorik izan nahi ez baduzu mantendu ahoa itxita.



Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra. Badakigu arrakastatsu zaudela azken aldian, baina ez ezazu hainbeste sinestu. Ezustekoren bat izan dezakezu. Argi ibili!

agenda

KAFE ANTZOKIA:

Martxoaren 23: Siniestro Total.
Martxoaren 31: Maceo Parke.

BIDEBARRIETAKO LIBURUTEGIA:

Martxoaren 18tik Apirilaren 2ra arte: Izar berrien laugarren lehiaketa, 8 eta 16 urte bitarteko ume eta gazteei zuzenduta. Informazio gehiago, liburutegian.

Martxoaren 22 eta 23: «Hermes eta 1917ko bilbotar-belaunaldia» ihardunaldiak.

BBK FUNDAZIOA:

Apirilaren 15 bitartean: Itsas maketak erakusketa. Gran Víako aretoan.

ARRIAGA ANTZOKIA:

Martxoaren 24ik 26ra: Rhineko operako balleta. Le Fille Mal Gardée. Egitarau mistoa.

BILBAOARTE:

Martxoaren 24ra arte: Carlos Gredos eta Concha Arguesoren erakusketa. Instalazio eta argazkiak.

BILBOROCK:

Martxoaren 24: Etzakit, Sebastian Lizaso eta Aitor Mendiluze.
Martxoaren 25: Alborada. "El cianuro, sólo o con leche". Antzerkia.
Martxoaren 26: Perry Blake eta Geneva.
Martxoaren 27: "Lock & Lock", Guy Ritchierena. Zinea.
Martxoaren 31: Gozategi, Andoni Egaña eta Jon Sarasua.

EUSKALDUNA JAUREGIA:

Martxoaren 24: Bilboko Orkestra Sinfonikoaren ganbara kontzertua, Bilboko koralagaz.
Martxoaren 25: Musiketan sailean, "Tao Rabao & Vincent Bucher".

